

**Kaixo!
Zuri laguntzeko
gaude.**

Sukaldaritza eta garbiketa
zerbitzuak kolektibitateentzat

Ausolan.

Ausolan pertsonak
ulertzea, artatzea
eta zaintzea da,
pertsonen ongizatea
bermatzea.

Zu bezalako
pertsonena.

Ondo sentitu zaitezten eta
arreta zure eguneroko
jardueretan jar dezazun
nahi dugu, gaitasuna eta
giza ikuspegi ondoen
konbinatzen dituen
bazkidea aukeratu
izanaren lasaitasunarekin.

Ondoan izango gaituzu
behar duzunean
laguntzeko. Zugandik
gertu,
egunero.


Laura Rodríguez
Ausolan Taldearen Zuzendari Nagusia



Al.

%100ean kapital nazionala duen enpresa-talde bat gara, gizataldeei zuzendutako sukaldaritzako eta garbiketako zerbitzu integraletan liderra. 55 urtetik gorako historia dugu eta, denbora horretan, tokiko hainbat proiektu txertatu ditugu, bezeroarekiko hurbiltasuna eta leku bakoitzeko ohiturekiko errespetua mantenduz.

Egiten dugunarekiko konpromisoa.



- Ausolanen presentzia

Etengabe hazten ari gara eta sukaldeak eta bulegoak dauzkagu geografia nazional osoan. Horrek zugandik gertu lan egitea ahalbidetzen digu, zerbitzurik onena emateko eta tokiko kulturaren oinarrituta lan egiteko.

Ausolan gara



Al.

Gure jatorritik gertu.

Gure jatorriak bultzatzen gaitu. Izan ere, **1969. urtean lanean hasi ziren 17 emakumeren elkarlanak** definitu dute Ausolan hasiera-hasieratik.

Ausardia hori **11.000 profesional**z osatutako taldean islatzen da, zeina nagusiki emakumez osatuta baitagoen.

Kooperatiba gara.

Enpresa egiteko beste modu bat. Berdintasunezko botoekin eta ordainsari-ekitatearekin. Lanpostu jasangarri eta kalitatezkoekin.

Tokiko garapenarekin eta erabakiak jatorrian hartzearekin konprometitua.



Ezagutu hau posible egin zuten 17 emakume horien historia

Zugandik gertu gaude.

Ausolanen, gertutasuna da gure esentzia, eta modu pluralean, alderdi pertsonala, fisikoa eta enpresarena barne hartzen dituelako.

Gertutasunez jarduten dugu, egunero, orduero, zure eta zure ongizatearen alboan egongo garelako konfiantza izan dezazun.

Zugandik gertu egon nahi dugu, eskualde bakoitzaren berezitasunetara egokitzeko eta tokiko kulturari eta produktuei atxikitzeko.

Azkenik, zure negoziotik gertu gaude, zure jardueraren egunerokotasunean murgiltzen garelako, hura ondo ulertzeko eta behar duzun irtenbidea eskaintzeko.

Izan ere, Ausolanen beti sentituko gaituzu gertu.

①

Arima gara

Batasunetik abiatuta hazten gara, berezi egiten gaituzten balioak partekatuz.

②


Hitza gara

Konfiantza zintzotasunetik eta eguneroko konpromisotik eraikitzen da.

③

Ekintza gara

Ekimenez eta soluzio berritzaileekin mugitzen gara.



Zer egiten dugu?

Sukaldaritza eta garbiketa zerbitzuak.

Sektoreak:




Hezkuntza

Ikastetxeak, haur-eskolak, institutuak, unibertsitateak eta unibertsitate-egoitzak.



Enpresak

Enpresa korporatiboak eta industrialak.



Soziosanitarioa

Egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak (ELZ).



Soziala

Zentro okupazionalak, heziketa berezikoak eta adin txikikoenak.



Osasuna

Ospitaleak, klinikak, osasun mentala eta egoitzak.



Korporatiboak eta sozialak

Hitzaldiak, merkaturatzeak, bilerak, ezkontzak, urteurrenak, festa pribatuak...

Sukaldaritza zerbitzuak kolektibitateentzat



Gertuko zerbitzua eta kalitatezkoa

Proposamen gastronomikoa

Janari osasuntsua, egunero.

On egiten dizunaren alde egiten dugu, dieta aberats, askotariko, osasuntsu eta orekatuak eskainiz.

Egunero egiten dugu lan gure bezeroen beharrak kontuan hartuta menu orekatuak eta osasuntsuak eskaintzeko. Halaber, arreta handia jartzen diegu dieta bereziei.

Oreka nutrizionala plater bakoitzean, askotariko eta sasoiko zaporeekin. Tradizioaren, berrikuntzaren eta ingurunearekiko errespetuaren arteko lotura ezin hobe.

Kalitatearen hudeaketa

- ① **Segurtasuna garrantzitsua da guretzat**
- ② **Exijenteak gara gure hornitzaileekin**
- ③ **Konpromisoa daukagu ingurunearekiko**
- ④ **Kalitate handiko produktuekiko eta abangoardiako teknologiarekiko**

jasangarria

osasungarria

5s

osasuntsua

segurua

zaporetsua

Pertsona kudeatzailea

Zerbitzua bideratzen duen giltzarria.



Ausolan taldea zentroan koordinatzeaz arduratzen da, beti guztiak ongi funtziona dezan. Zentroaren, zentroko taldearen eta gure erakundearen arteko harremana lagundu eta haien arteko komunikazioa bermatzen du.

Zentroaren egunerokotasuna eraginkortasunez antolatzeaz, irtenbideak emateaz eta aurrera eramateaz arduratzen da, zerbitzu ezin hobe bermatuz.

Kudeatzailearen zereginak

Langileen estaldura bermatzea
Etengabeko ikuskapena
Formakuntza-plana proposatu eta ezartzea

Bezeroarekiko komunikazio zuzena
Kalitate-plana ezartzea
Gorabeherak konpontzea eta beharrak aurreikustea

Beharrak aurreikustea
Zerbitzua bermatzea
Laneko planak antolatzea
Zentroaren eta Ausolaneko sailen artean elkarriketan jardutea

Espazioaren eraldaketa

Jateko eta elkarbizitzeko espazio bat baino askoz ere gehiago.

Inguruak eragin handia du pertsonengan; are handiagoa, gainera, eguneko unerik berezietan: otorduetan. Horregatik, hunkitzen duten proiektuak diseinatzeko ditugu, zentro bakoitzaren beharren arabera esperientzia pertsonalizatuak izatea ahalbidetzen dutenak.

Espazio berrien diseinua, abangoardiako metodologiak erabiliz.



Jasangarritasuna

Jangela Eko-arduratsuaren ziurtagiriarekin.



9 oinarriren bidez jasangarritasunaren aldeko aurrerapausoak ematen lagunduko dizun eredu bat daukagu. Bureau Veritas-en "Jangela Eko-arduratsuaren Ziurtagiria" lortzen lagunduko dizugu.



Jarduera -sektoreak

HEZKUNTZA sektorea

Jangela atsegina...

Ausolanen badakigu jangela oso espazio garrantzitsua dela gure haur eta gazteen garapenerako. Hori dela eta, jasagarritasuna gure hezkuntza integralaren oinarri gisa hartzen duten jarduerak egiten ditugu gure jangeletan eta ingurunearekiko jasagarriak diren osasuna, aisia, denbora libre eta bizikidetzaren sustatzen saiatzen gara.

"Elikadura zaindua eta hazkuntza-fase bakoitzari egokitu, haurtzarotik unibertsitatera".

eta hezten duena.

Osasuna sustatzeko heziketa. Bizi-estilo osasuntsua eta arduratsua izateko ohiturak sustatzen ditugu.

Aisia eta denbora libre sustatzeko heziketa. Haurren partaidetza, inklusioa eta kohesioa sustatzen ditugu.

Bizikidetzaren sustatzeko heziketa. Errespetuzko, segurtasunezko eta konfiantzazko giro bat sustatzen dugu, haurren garapen afektiboan laguntzeko.

Benetako esperientziak sortzeko soluzio berritzaileak.

Borbor metodoa

Jangela atsegina

Borbor metodologia eskaintzen dizu Ausolanek, bertako langileekin elkarlanean jangelako esperientzia ikastetxearen beharretara egokitzeko. Gure Borbor© metodoari esker, ikastetxearen neurrira egindako jangela bat sortzen lagunduko dizugu, zure ildo pedagogikoarekin bat etorritz. Ikasleek erabili nahi duten jangela, familiek konfiantza dutena.



Lortu Borbor© metodoari buruzko informazio gehiago!

Decidere


Jangela ez dirudien jangela

Decidere Ausolanen jantoki-zerbitzu berria da, 14 eta 18 urte bitarteko jankideei zuzendua.

Soluzio abangoardista da sektorean eta jangela-zerbitzuei balio bereizgarria ematen dien ekosistema digital batean oinarritzen da.



Ezagutu Decidere bideo honetan!



Al.



Sektore SOZIOSANITARIOA



Bertan bizi direnak etxean bezala senti daitezela egiten dugu.

Konpromisoa dugu adin nagusikoen ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin. Horregatik, gure esperientzia gastronomikoak janariarekin modu berri eta zirraragarrian gozatzeko gonbit egiten du, zentzumen guztiak aintzatetsiz, zapore berriak ezagutzen lagunduz, sukaldaritza-istorioak ezagutuz eta horiek partekatuz.

Beste zerbitzu batzuk:

- ① Etxez etxeko laguntza zerbitzuak
- ② Eguneko zentroetarako eta bizikidetza-unitateetarako elikadura-zerbitzuak

Sektore SOZIALA

Gurekiko konfiantza dutenen bizi-kalitatea hobetzen dugu.

Egoera zaugarrian dauden edo desgaitasuna duten pertsonen (haurrak, gazteak, familiak...) elikadura-zerbitzuetan espezializatuta gaude.

Halaber, menu egokituak eta pertsonen modu seguru eta eraginkorrean irenstea bermatuko dien menuak eskaintzen ditugu gure testurizatuen katalogoan.



OSASUN sektorea



Zuri gehiago ematearen balioa, pertsonetan ardaztutako ikuspegia.

Paziente bakoitzaren mediku-preskripzioari egokitutako dieta pertsonalizatua.

Ospitaleko esperientzia ere hobetzen dugu, une hori atseginagoa izan dadin. Hala, menu tematikoak eskaintzen ditugu egun

berezietan. Senideak eta osasun-langileak zaintzen ditugu ospitaleko kafetegi eta jangeletan eta aukera gastronomiko zabala eta vending-aukerak eskaintzen dizkiegu atsedean hartzen duten uneetarako.

ENPRESA sektorea

Zure enpresarako joera gastronomiko berrienak eskaintzen dizkizugu.

① **Sukaldaritzako momentu bereziak sortzen ditugu.** Sukaldaritzako berrikuntza, tradizioa, osasuna eta asebetetzea bermatuz.

② **Zure eskueran dagoen soluzio digitala.** Kudeatu eskaerak eta kobrantzak erraz eta zuzenean gure aplikazio digitalarekin.

③ **Elikaduraren inguruan behar duzun informazio guztia.** Alergenoei buruzko informazio nutrizionala, argi identifikatua.

④ **Espazio erosoak.** Zure espazioa atsedean hartzeko eta gozatzeko gune bihurtzen dugu.



Garbiketa
zerbitzuak
kolektibitateentzat



Ausolan.

Zure espazioa, esku onetan

Zerbitzu pertsonalizatua eta egokitua.


Kalitate handiko garbiketa-zerbitzu integralak eskaintzen dizkizugu.

Gure zerbitzuek xehetasun guztietan jartzen dute arreta, eta bezeroen eta erabiltzaileen ongizatea sustatzen dute ingurune garbi, ordenatu eta seguruak eskainiz.

Garbiketa-zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, zentro bakoitzaren behar

bereziei egokituak. Horretarako, instalazioen, lan-sistemen integrazioaren eta gure bezeroen eskakizunen ikerketa tekniko zorrotzak egiten ditugu.

Bezeroen beharrak asetzeko, Ausolanen garbiketa-zerbitzuak **frogatutako prozesu arrakastatsuetan oinarritzen dira.**



Ausoklean

Ausoklean

Ausolanen garbiketa-zerbitzu integrala

Ausolanen, garbiketa-estandarrak igotzen ditugu eta zure zentroa leku ezin garbiago bihurtzen dugu. Horretarako, Ausoklean izeneko metodoa erabiltzen dugu, zeinak abangoardiako garbiketa-prozedurak eta -protokoloak erabiltzen baitituen.

Kalitate goreneko garbiketa da gure konpromisoa.

Noiz?

Lan-programa:
Gainazalaren araberako garbiketa-maiztasunak.

Nork?

Zerbitzuaren beharrei
erantzuteko Ausolan talde egokiak.

Zer?

Garbiketa-eremuen identifikazioa.

Nola?

Garbiketa-protokoloak:
Gainazal bakoitza garbitzeko argibide xehatuak.

Zergatik Ausolan?


Hobekuntzarako proposamenak,
emaitza bermatuekin.

Zerekin?

Garbiketa-sistemekin:
materialak, produktuak, tresnak, makineria.

Pertsona kudeatzailea

Kalitatezko zerbitzuaren bermea.



Pertsona kudeatzailearen bidez, erakunde osoak ahalegin guztiak egiten ditu garbiketa-zerbitzuak bermatzeko.

Arazorik gabe.

Kudeatzailearen zereginak

Langileen estaldura bermatzea
Etengabeko ikuskapena
Formakuntza-plana proposatu eta ezartzea

Bezerearekiko komunikazio zuzena
Kalitate-plana ezartzea
Gorabeherak konpontzea eta beharrak aurreikustea

Beharrak aurreikustea
Zerbitzua bermatzea
Laneko planak antolatzea
Zentroaren eta Ausolaneko sailen artean elkarrizketan jardutea

Jarduera -sektoreak

HEZKUNTZA sektorea

Ingurune seguru eta osasungarriak bermatzen ditugu garrantzitsu zaizkigun pertsonentzat.

Ausolanen, neurria egindako garbiketa-zerbitzuak eskaintzen ditugu eta zentro bakoitzaren behar jakinetara egokitzen gara.

Bestelako hezkuntza-zentroetarako garbiketa-zerbitzu integralak:

- ① Haur-eskolak
- ② Institutuak, unibertsitateak
- ③ Unibertsitate-egoitzak

Hauek barne hartzen ditu: garbiketa orokorrak edo obren ondorengoak, kristalen eta fatxaden garbiketa, lurren eta ehun-gainazalen garbiketa metodo mekanizatuekin eta ikastetxe bakoitzari egokitutako beste zenbait zerbitzu osagarri.



ENPRESA sektorea

Produktibitatea sustatzeko lan ingurune garbiak eta atseginak.

Bulegoetarako garbiketa-soluzio integralak eskaintzen ditugu, lantoki garbi eta erosoak mantentzeko diseinatutakoak.

- ① **Bulegoen garbiketa orokorra**, lan-ingurunea egokia dela bermatzeko.
- ② **Kanpoaldearen garbiketa**, irudi profesional eta zaindua emateko.
- ③ **Kristalen eta fatxaden garbiketa-zerbitzu espezializatuak**, lantokiaren ikusgaitasuna eta estetika hobetzeko.



Sektore INDUSTRIALA



Ingurune industrialetan segurtasuna eta ordena bermatuz.

Ingurune industrialetan daukagun esperientziari esker, lan-ingurune seguru eta arriskurik gabeak bermatzen ditugu.

① **Lantoki industrialen garbiketa integrala.** Txoko guztiak zaintzen ditugu eraginkortasuna eta segurtasuna bermatzeko.

② **Hondakinen kudeaketa eta tratamendua,** ingurune-arauak betetzen direla bermatzeko.

OSASUN sektorea

Espazio guztiak babesten ditugu zure ongizaterako.

① **Ingurune osasuntsua izateko espazio desinfektatuak.** Instalazio guztiak garbi-garbi eta desinfektatuta daudela ziurtatzen dugu, arrisku-eremu guztietan.

② **Ospitalizazio-eremuen garbiketa sakona.** Pazienteen osasuna eta segurtasuna

bermatzen dugu gelak sakon desinfektatuz.

③ **Eremu kritikoaren desinfekzio intentsiboa** Garbiketa sakonak egiten ditugu arrisku handiko eremuetan; esaterako, ebakuntza-geletan, ZIUan, kirurgien ondoren edo ospitaleko altetan.



SHARMA Ausolan
 Taldeak sortutako gama
 altuko cateringa da,
 sukaldaritzaren sektorean
 55 urteko esperientzia
 daukan konfiantzazko
 profesional talde batez
 osatua.

Sharma, gure gourmet cateringa



Esperientzia gastronomiko paregabeak eskaintzen ditugu une bakoitzean.

Diseinua, fusioa eta pasioa
 lehengaien kalitate gorenarekin
 eta jasagarritasunarekiko
 konpromisoarekin.

Gure goi-mailako sukaldaritz-
 proposamenak tradizioa
 eta berrikuntza uztartzen
 ditu eta, era berean, hura
 pertsonalizatzeko eta egokitze-
 aukera eskaintzen dugu.

Bezeroak zerbitzuarekin pozik
 egon daitezen nahi dugu eta,
 horretarako, sasoiko tokiko
 produktuak eta lehengai
 ekologikoak erabiltzen ditugu,
 plater bakoitzaren bikaintasuna
 bermatzeko elaborazio zorrotz
 baten bidez.

Moldakortasuna, malgutasuna
 eta ekitaldi bakoitzari egokitutako
 zerbitzua: ekitaldi korporatiboetara,
 biltzarretara, produktuen
 aurkezpenetara, merkaturatzeetara,
 sari-banaketetara, enpresa-
 festetara...

Gainera, nazioarteko azoketan
 parte hartzen dugu eta haietan
 catering-zerbitzuak eskaintzen
 dizkiegu enpresei euren stand-
 etan. Halaber, azokaren ordutegitik
 kanpo aldizkako ekitaldiak
 antolatzen ditugu, gure bezeroek
 "happy hour" zerbitzuetan haien
 esperientzia gastronomikoa
 areagotu dezaten.

Gure konpromisoa



Gure konpromisoa da desberdintzen gaituena.

Ausolanen, konpromisoak itxuratzen du gure izateko eta jardutek modua. Kooperatiba gisa, erantzukizun soziala gure DNAn dago.

Gure hitza betetzeaz gain, planetarekiko, gure taldeekiko eta gizartearekiko ardura daukagula sentitzen dugu.

Jasangarritasunarekiko gure konpromisoa

Ausolanen alde egitea gure planetaren epe luzerako jasangarritasunarekiko kezka daukan hornitzaile baten alde egitea da. Ausolanek, etorkizunarekiko ardura sentitzeaz gain, bere estrategiaren funtsezko osagai bihurtu du jasangarritasuna.

-  Erosketa berdea
-  Mugikortasun jasangarria
-  Zerbitzu eta produktuen ekodiseinua
-  Hondakinen berrerabilera eta balorazioa
-  Ontzien ekodiseinua
-  Ekoizpen jasangarria
-  Alferrrik galdutako elikagaien murrizketa
-  Hobekuntzari begirako neurketa eta jarraipena





Gizartearekiko gure konpromisoa

Gure lantaldeei ematen diegun zaintza eta babesa egunero bermatu nahi dugun **osasunaren, segurtasunaren eta ongizatearen** isla dira.

Guztionezko lanpostu egonkor eta kalitatezkoak sortzen ditugu **gizon eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna** sustatzeko. Gurean, ibilbide profesionala garatzeko eta

bizitza pertsonala, familia eta lana orekatzeko baldintzak eskaintzen dizkiegu langileei.

Jakintza, profesionaltasuna, aniztasuna eta **desgaitasuna duten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak** barne hartzen ditugu. Pertsonak, finean.

Gizartearekiko gure konpromisoa

Elkartasuna da gure ezaugarri nagusietako bat. Gure irabazien zati bat proiektu sozialetara bideratzen dugu.

Hala sortu zen **Ausolan Fundazioa**, kolektibo zaugarriek elikadura osasuntsua, nahikoa eta jasangarria jasotzen dutela bermatzeko eta emakumeen trebakuntza tekniko eta profesionala bultzatzeko, enplegu duina lortzeko aukera izan dezaten.

Gosea zero:

Hainbat jantoki sozial eta entitateren bidez, egoera zaugarrian dauden familien gosearen aurka egitera bideratutako ekintzak.

Aukerak:

Egoera zaugarrian dauden emakumeen trebakuntza eta lan-munduratzea ditu helburu, enplegu duina lortzeko aukera izan dezaten.



Ausolan.
Fundazioa



AL.

Zure egunerokoaren parte izateko irrikaz gaude.

Hitz egingo dugu?

ausolan@ausolan.com
ausolan.com

@grupoausolan



Ezagutu gaitzazu sakonago bideo honetan

ausolan.com

**Egunero
zurekin**

Ausolan.